

GURE EKOSISTEMAKO IRUDIAREN AZALPENA

Taldea: 5. Taldea

Izen-abizenak: Leire Soto, Julene Palacios, Ander Muñoz eta Markel Goikoetxea.

Izenburua: Atlantiko ozeanoko ekosistema.

EKOSISTEMAK gaia adierazteko egingo dugun irudiaren ikusizko baliabideak txosten honetan azalduko ditugu. Azalpen honen bitartez irudi proiektuaren planifikazioa egingo dugu. Showbieren bitartez bidaliko dugun txosten hau proiektuaren ebaluaziorako errubrikaren bigarren atalean baloratuko da.

1. **Irudiaren mezua eta efektuak.** Zer adierazi nahi dugu irudiaren bitarte? Zeintzuk dira irudiak adierazten dituen efektuak?

Mezua: Elikatze prozesua, animalia batek beste bat jaten du.

Efektuak: **Mugimendua, norabidea eskumatik ezkerreara, bizitasuna eta kontrastea.** Nahiz eta goian mugimendu gehiago dagoen, behean algak jarri ditugulako, algak ere mugitzen dira urari esker.

2. **Ikus-elementuak.** Irudian erabiliko ditugun lerro eta koloreak azalduko ditugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako ikus-elementuak eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuarekin harremantzeko.

- Lerroak (lerro motak eta hauen ezaugarriak):

Lerro kurbatuak erabili ditugu, **mugimendua eta norabidea** adierazteko, **eskumatik ezkerreko norabidea** da. Lerroen intentsitatea landu dugu garrantzia gehiago dituzten elementuak gehiago ikusteko. Zabalera ere erabili dugu lerro batzuk zabalagoak eginez lerro horien efektua handitzeko. Lerroetan koloreak erabili ditugu.

- Koloreak (kolore motak eta hauen ezaugarriak):

Kolore gama desberdinak erabili ditugu **bizitasuna eta kontrastea** lortzeko. **Kontrastea** kolore desberdinekin lortzen da, hau da, kolore hotzekin eta beroekin. Zirkulu kromatikoaren koloreak erabili ditugu kontrasterako, honek esan nahi du ez dagoela armoniarik.

3. **Irudiaren konposaketa.** Irudian erabiliko dugun konposaketa azalduko dugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako konposaketa eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuarekin harremantzeko.

- Konposaketa (simetria, asimetria, erritmoa... eta honen ezaugarriak):



Gure ekosistema urekoa denez eta irudiak elikatze prozesu bat azaltzen duenez, formatu edo konposaketa hau erabili dugu. **Eskumatik ezkerrera** animalia batek beste bat jaten duelako, eta beste formatu batean ez zelako ondo geldituko. Adibidez, lauki batean jartzen badugu ez luke koherentziarik izango.